

**EGUNERO (8 Ordu)**  
(K. Arkarazo-X. Montoia)

Egunero zortzi ordu eta bost egun astero, asteak zenbat diren ez dut kalkulatuko. Ia ohartu gabe denbora pasa (egin) de, laburra izango zena zeharo luzatu da eta urte hasieran beti lelo berbera: hasten dugun berri hau azkena izango da! Gezurrak behar dira egiteko aurrera. Nola eraman bestela hain bizimodu hutsala? Nola jeiki, nola ahantzi nere ametsen porrota? Nondik atera indarra esateko egunon. Egunero zortzi ordu. (Lau bider)

Egunero zortzi ordu jefo tentela entzuten: Aizu, esna zaitel! Hemen lan egin behar da. Ondoko lankidea bere haurraz da mintzo: Agina atera zaito asko sufritu (egin) du. Betiko neskazaharra asteburuaz ari da. Horra hor Arze jauna beti purua ahoan: Nere semea balitz ez zen hola ibiliko. Egunero zortzi ordu. (Lau bider)

# M-ak

ZULOA

Egun batean alde egingo dut inork ez nau ikusiko ordu(ajn) urrun joanen naiz oso urrun inork ez aurkitzeko.

**SUGEAREN TENTALDI BERRIA**  
(X. Montoia)

Nola dezake inork munduaren zama bere sorbaldetan osoa eraman? Ba al dago inor hain memelo dena jaungoikotzat hartzeko bere burua? Amaren sabelean denok izan gara, jaiok gara bai, era berean. Hil eta sortu historia ezaguna. Pasa dezagun ondo ahal den bitartean.

Etorri etxera  
zeurea ere bada!

Aspaldi(ajn) eman zenu(e)n eman beharrekoa orain atsedean hartu, merezi duzu eta! Izan lasai zeharo ez zara bakarra beste batzuk atzelik etorriko dira! Ez izan hain egoskorra alferrik ari zara zure borroka horretan, ez da hain zaila Nork ez du senditzen laztan baten premia?

Etorri etxera  
zeurea ere bada!

**NEGOZIAKETAREN BEHARRA**  
(K. Arkarazo-X. Montoia)

Negoziaketaren beharra aipatzen duk maiz-sarritan, baina gure artean, laztana, ez diagu hori behar. Hik eskeintzen duana, zer axola! edo nik eman dezakedana, gure artean, berriro zioat, ez diagu hori behar.

Hire magale gozoan xamur, xamur. Hire magale gozoan...

Laga ditzagun hitzak orain, ez duk hain zaila ulertzeko, ikutu ene eskua soilik, berak oro esango dik eta.

LELOA

Hire ezpain gori horiek eneak zoratzin dizkitek, behatz bakar batez laztandu hik nahi dukena egingo diat.

LELOA

Hire jopua hire morroia izango nauk, agin nazak, ene buruak hire altzoan har dezala atsedena.

LELOA

**AUKERA NAZAZU**  
(K. Arkarazo-X. Montoia)

Maitzea badakizu soberan batere zoragarria ez naizela, eskeintzeko ez daukat zera handirik, baina hala ere nitaz ez ahaztu.

Aukera nazazu  
Aukera nazazu...

Emango nizuke gauza ugari emateko ezer izanez gero. Ausarkeria izango ote ausartzen banaiz zuri eskatzen:

Aukera nazazu  
Aukera nazazu...

Badakit ez naizela bakarra guztion ametsa zara eta. Filma famatu hartan bezala, neuk ere gauza bera diotsut:

Aukera nazazu  
Aukera nazazu...

**E.T.**  
(K. Arkarazo-X. Montoia)

Zer diozu?  
Ez dut ulertzen mintzatzen zareanean.

Nor zara zu?  
Zure aurpegia egiten zait ezaguna.

Esaidazu  
zer dela medio behatza pizten zaizula.

Entzuidazu  
aurerantzean  
E.T. izango zara.

## BIZITZAREN BAT (X. Montoia)

Beitu, beitu ni naiz, ni,  
agartzen den tipo arrunt hori,  
honenbeste urte eta ez ezagutu  
zure ondoan egunero pasatuz.  
Noski, noski normala da,  
ez naiz sekulan telebistan azaldu.  
Telebistan, zergatik?  
ez badut inoiz ezer berezirik egin.

Langile ona izan nahi nuen.  
Senar zintzoa izan nahi nuen.  
Maitale fina izan nahi nuen.  
Begira zertan geratu naizen.

Atzo, bihar, berdin da  
ezer ez dela jazoko jakinez.  
Denboraren igaropen hutsala,  
heriotzaren zai gogaitua.  
Mina, mina, hezurretan mina.  
Euri gehiegi, bai gogotik.  
Egusentitik gaua arte  
ahalegin alferretan itsuki.

Langile ona izan nahi nuen.  
Senar zintzoa izan nahi nuen.  
Maitale fina izan nahi nuen.  
Begira zertan geratu naizen.

Beitu, beitu ni naiz, ni (...)

## SABELIZTUNA (K. Arkarazo-X. Montoia)

Aurpegi horrek beste bat ezkututzen du,  
lainoak mendia eta itsaso bezala.

Beti alai      Alai?  
Bet alai

Esku hauek, hain garbiak, uso bi hegian.  
Beste batzuk, oso abilkoi, mugitzen dituzte.

Entzun sabeliztuna  
amaitu duk joko!  
Orain sabeliztuna  
nork sinistuko ote hau?

Zein ederki mintzo den sabeliztuna!  
Zein jario, zein hizkera lasaigarria!

Beti alai      Alai?  
Bet alai

Hitz bakoitza litze bat haur baten buruan.  
Aditzipean, labantzarrak datzate lotan.

Entzun sabeliztuna  
amaitu duk joko!  
Orain sabeliztuna  
nork sinistuko ote hau?

## MILENIOA (X. Montoia)

Entzun ezazue ondo  
esango dudana  
Eukalerrietaz  
hitzegingo dut ta.  
Azken bolada honetan  
egunkarietan,  
irratian, telebistan  
eta abarrekotan  
badaude hitz batzuk:  
Pakea, Arrazoia,  
behin eta berriro  
aipatzen direnak.  
Gaixorik omen gaude,  
larri eta etsituak,  
gaitzaren izena:  
Milenarismoa.

Basati eta arlote  
biti odolzaleak,  
elizkoi eta ankerrak  
beti izan gara.  
Erailkitzeko gauza  
ez gara inoiz izan  
suntsitzeko bakarrik  
gaitzutu bikainak.  
Madriren ez bilatu  
inoingo erruduna  
gure gaitzen susiraia  
datza gure baitan,  
hala diote behintzat  
jakintsu guztiek:  
Savater, Onandia  
eta Caro Barojak.

Milenioa dator: Hola omen da.  
Milenioa dator: zoritxarrat!  
Milenioa dator: ta gu honelak!  
Milenioa dator: Hau ikaral!  
Milenioa dator: Euskaldunok!  
Milenioa dator: Guztiontzat!  
Milenioa dator: Prest gaitzen!  
Milenioa dator: Berehala.

## E.G.I.A. (K. Arkarazo-X. Montoia)

Ez hotsegin gehiago,  
ez duzu behar (e)ta,  
gauza batzuk, maitea,  
ez dira aipatu behar.  
Zertarako berba egin, zertarako?  
Elkaren berri aspalditik dugu.  
Esan, zenbat bider gehiago  
eszena bera errepikatu behar?

Egia, inori axola zaió?  
Egia, inork jakin nahi du?  
Egia, inori axola zaió?  
Egia, esan zertarako?

«Ez dut berriro ingo-  
aise esan daiteke.  
«Barkatu, barkatu, barka»  
oso errez ere.  
Zertarako berdin jarraitu?  
egunero lelo berbera.  
Egia gora, egia behera  
ez ote da hori gezurrik handiena?

## LELOA

Nik egin ote nuen  
ala zu izan zinen?  
Erruduna nor den,  
ez da oraingo kontua.  
Eginak egin eta joanak joan,  
horrela izaten omen da,  
saiatu ginela ezin da ukatu  
horra egia bakarra.

## ZULOA (K. Arkarazo-X. Montoia)

Behar den zuloan nahi nuke nik hori  
kultuna, kanpao hotz-hotza denean.

Zuloan	Zuloan	Zuloan	Zuloan
zeruan	zeruan	zeruan	zeruan
zuloan	lekurik	zuloan	zuloan
ene atsegina	egokiena	ene aterpea	ene atsegina

Zuhurki gorde amodiozko koban  
bitizta zitailak erasotzerakoan.

## **CHOMSKY** (K. Arkarazo-X. Montoia)

Ez da gozoa pizten arteko bizitza, zaziada batez urra dezakete bihotza eta gizonaren gogoia jakí gozuentzat betidanik omen dute.

Chomsky!

Ez da gozoa piztien arteko bizitza taldetik aidentzen denarentzat eta esaten dute, bai esaten dute betidanik horrela izan dela, baina bada hori sinisten ez duenik.

Chomsky!

## **JUAN PABLOREN BIDAIAK** (K. Arkarazo-X. Montoia)

Artzai onak bere ardiak ondo zaindu behar ditu, artaldez artalde ibili, guztiak bisitatu.

Aita: Kazetariak  
Aita: Hiriko alkatea  
Aita: Sotana berria  
Aita: Umeak zai ditu

Handiegia da mundua oinez zeharkatzeko. Ene abioiaz soilik noa deabrua baino azkarrago.

Aita: Kazetariak  
Aita: Hiriko alkatea  
Aita: Sotana berria  
Aita: Umeak zai ditu

## **JAUNGOIKOA: BAT ALA HIRU?** (X. Montoia)

Elizara ez noa otoitz egitera, ez diet sosik emango, gehiegi dute ia. Bildur izan, zergatik?, zentzurik ez dauka esistitzen ez den norbaiten aurrean.

Jaungoiko alu hori has hadi otoiizean, hire sasoi onenak zeudek bukatzeaz. Deabruarekin elkartu beharko duk eta, ta elkarrekin ireki Pub bat Donostian.

Bildur izan zergatik?, zentzurik ez dauka, zure bizitza osoan gauza ziur bakarraz, heriotza ez da ezer berezia biziarekin doa guztiz bat eginda.

Jaungoiko alu hori has hadi otoiizean, hire sasoi onenak zeudek bukatzeaz. Gizonik ez du sortu inoiz Jaungoikoak, Jaungoikorik gizonak askotan ordea.

Fedea eduki badaukat, soberan benetan, nigan dut fedea ez irudi batetan. Jainko ugari da munduan ia elizak bezainbat horien beharrik ez daukat, neu naiz nere ezliza.

Jaungoiko alu hori has hadi otoiizean, hire sasoi onenak zeudek bukatzeaz.

Deabruarekin elkartu beharko duk eta, ta elkarrekin ireki Pub bat Donostian. Gizonik ez du sortu inoiz Jaungoikoak, Jaungoikorik gizonak askotan ordea. Deabruarekin elkartu beharko duk eta, joan zaitzete biak komunetik behera.

## **URTEURRENA** (K. Arkarazo-X. Montoia)

Orain hitzegin dezagun orain aspaldian gertatutakoaz, iraganaren liluraz.

Orain sasoi hobeak gogoan, ezpainetan irrifarra, urteurrena dela eta.

Gehiegi nahi ote genuen?: Dana nahi genuen dana...

Orain ikerlariek dute txanda, aztertu behar omen da. Idatz dezaten nahi adina.

Ezin da esan deus lortu zenik, ireki itzazu ongi begiak. Eglozu so zure inguruari ea zer ikusten duzun...

Gehiegi nahi ote genuen? Dana nahi genuen dana...

**ANJEL VALDES:** Perkusioa.  
**XABIER MONTOIA:** Ahots nagusia eta Ahotsak.  
**KAKI ARKARAZO:** Kitarra, teklak eta Ahotsak.  
**FERNAN IRAZOKI:** Bateria.  
**MIKEL IRAZOKI:** Baxua.

**Fer eta German:** Ahotsak.

**HAIZEA:**  
**Josetxo Silgueiro:** Saxofoia.  
**Karlos Hipolito:** Tronboia.  
**Mikel Valcarlos:** Tronpeta.

Musika arregloak: **K. Arkarazo / M-ak.**  
Haize arregloak: **J. Silgueiro.**  
Grabaketa: **K. Arkarazo - Anjel Gonzalez.**  
Azala: **A. Gonzalez / M-ak.**  
Zuzeneko soinua: **A. Gonzalez.**